



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urriaren 30a

117. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (6. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berariazko plan bat abiaraz dezan, marokoar populazioa gure erkidegoan integartzeko. Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztu du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 2020-21 ikasturterako gradu eta master ikasketetarako beken deialdiari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, bikote egonkorren erregistro bakarra sortzeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga andreak egin du (9. or.).
- Galdera, etxebizitza egokirako sarbiderik ez duten pertsonen berrogeialdiak bermatzeko bitarteko baliabidei buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Errege Bardeako Biosferaren Munduko Erreserbaren eta Parke Naturalaren mugan parke eoliko bat instalatzeko proiektuari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (11. or.).
- Galdera, COVID-19aren krisiak Nafarroako Foru Komunitateko emakumeengan duen eraginari buruzko azterlanari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (12. or.).
- Galdera, kirol-ekitaldien babesletzari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (12. or.).
- Galdera, unibertsitate-ikasketetarako 2020/21 ikasturterako beken deialdiari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak egin du (13. or.).

- Galdera, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen ebaluazio-probei buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako hizkuntza eskolen kontingentzia planari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nastat-en galdetegiari buruzkoa. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, transferentzia arrunten aparteko funtsa ordaintzeari buruzkoa, COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan duen inpaktua apaltzeko. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Estatuak autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako duen 300 milioiko aparteko funtsari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (18. or.).
- Galdera, COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko egoitzak finantzatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Interpelazioak osoko bilkurako gai-zerrendan sartzeko arauak (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2020ko urriaren 21ean hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat eta aparteko kreditu bat ematen dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko

ATARIKOA

2020rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legean 68.500.000 euroko finantzaketa aurreikusten da Nafarroako Unibertsitate Publikorako, partida hauetan jasotzen dena:

– “NUPen finantzaketarako hitzarmena” izeneko G10001 G1110 4455 322300 partida, 66.120.116 eurokoa.

– “NUPen finantzaketarako hitzarmena: hobekuntzak” izeneko G10001 G1110 4455 322303 partida, 1.368.884 eurokoa.

– “NUPen finantzaketarako hitzarmena: inbertsioak” izeneko G10001 G1110 7455 322300 partida, 1.011.000 eurokoa.

Maiatzaren 5eko 17/2020 Errege Lege-dekretuak, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko, kulturegintzari laguntzeko neurriak eta zerga arlokoak onesten dituenak, azken xedapenetako seigarrenean aldatu zuen Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 81. artikuluko 3. apartatuko b) letra; horren ondorioz testu hau du letra horrek orain:

“b) Zerbitzu akademikoengatik ezartzen diren prezio publikoengatik eta legez ezartzen diren gainerako eskubideengatik jasotako sarrerak. Espainia osoan balio duten titulu ofizialak eskuratzeko ikasketen prezio publikoak eta eskubideak autonomia erkidego bakoitzak ezarriko ditu, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiak zerbitzua emateko kostuetan oinarrituta ezartzen dituen gehieneko mugen barruan eta zerbitzua emateko kostuetara lotuta.

Era berean, prezio publikoen eta gainerako eskubideen arloan legez xedatzen diren salbuespenek eta murriztapenek eragindako konpen-sazioak ere ezarriko dira.”

Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiak, 2020ko maiatzaren 27an egindako osoko bilkuran, matrikularako prezio publikoak ezartzeko eredu berri bat ezarri zuen 2020-2021 ikasturteko graduiko ikasketa ofizialetarako; Nafarroaren kasuan, horrek esan nahi du 2020-2021 ikasturteko prezioa izanen dela 2011-2012 ikasturterako ezarri zena. Doikuntza horren ondorioz, kredituaren prezioa %7,14 jaitsiko da 2019-2020 ikasturterako ezarri ziren prezio publikoak oinarritzat hartuta.

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren ekainaren 3ko 8E/2020 Foru Aginduaren bidez ezarri ziren Nafarroako Unibertsitate Publikoaren prezio publikoak 2020-2021 ikasturterako. Foru agindu horretan, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiaren 2020ko maiatzaren 27ko Osoko Bilkurak hartutako erabakiarekin bat, proposatzen da %2,38ko jaitsiera egitea lehen matrikulako kredituaren prezioan graduiko ikasketetan. Foru aginduan jasotzen da, halaber, jaitsiera hori mantenduko dela hurrengo ikasturteetan, harik eta kredituaren prezioak %7,14ko jaitsiera izan arte.

Aurrekoaren ondorioz, Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2020ko ekitaldian tasen bidez eskuratu dituen diru-sarrerak nabarmen txikiagoak izan dira ekitaldi horretarako bere aurrekontuan hasiera batean aurreikusitakoak baino. Prezio publikoen eredu berrietara hein batean egokitzeak tasengatik jasotako dirusarreretan izan du ondorioa, 164.243 euro txikiagoak izan baitira. Aurreko guztiagatik, Nafarroako Unibertsitate Publikoari konpentsatu behar zaio, aurrekontuan hasieran aurreikusi zituen dirusarrerekin alderatuta izan duen jaitsiera dela eta; horretarako, aipatutako 164.243 euroko kopuru hori gehituko zaio “NUPen finantzaketarako hitzarmena” izeneko G10001 G1110 4455 322300 aurrekontu-partidako kredituari.

Bestalde, ekainaren 16ko 22/2020 Errege Lege-dekretuaren bidez arautu zen COVID-19 Funtsa sortzea, eta hura banatzeko eta ordainketa arautzeko arauak ezarri ziren, finantzaketa handiago emateko, transferentzia bidez, autonomia erkidegoei eta autonomia estatutua duten hiriei, COVID-19ak eragindako krisiak aurrekontuetan ekarri duen gorabeherari aurre egiteko baliabideak izan ditzaten. Funts horren tartean 3. tarte dago, Hezkuntzako gastuarekin lotuta; guztira

2.000 milioi euroko zenbatekoa du eta horren %20 goi mailako hezkuntzako gastura bideratuta dago.

Ondoren, irailaren 1eko HAC/8509/2020 ministro-aginduaren bidez zehaztu zen 3. tartean, Hezkuntzako gastuari buruzkoan, aurreikusitako baliabideen behin betiko banaketa autonomia erkidegoen eta Ceuta eta Melilla hirien artean, baita bakoitzari dagokion zenbatekoa ere. Tarte horretako 2.000 milioi euroko kopurutik Nafarroako Foru Komunitateari 29.287.530 euro esleitu zitzaizkion.

Aurrekoaz esan beharra dago COVID-19aren pandemiaren eraginez Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere gain hartu behar izan dituela 2020ko ekitaldiko aurrekontuan hasiera batean aurreikusirik ez zituen zenbait gastu eta inbertsio. Unibertsitateak kalkulatu du jarduketa horien inpaktua 750.000 eurokoa dela.

Aurreko guztiagatik, indarreko hitzarmenaren “Finantzaketako doikuntzak” izeneko 10. klausula aplikatuz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Finantzaketarako Hitzarmenaren (2018-2020) Jarraipen Batzordeak erabaki zuen, 2020ko irailaren 28an egindako bileran, unibertsitatearen finantzaketa handitzea 2020an, aipatutako bi gertaera horiek ekarritako inpaktuari dagokion zenbatekoa gehituz, hau da, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Nagusiak erabakitako unibertsitate tasen jaitsierari dagokiona eta COVID-19aren pandemiari dagokiona.

Bi gertaera horiek Nafarroako Unibertsitate Publikoan izan duten inpaktu ekonomikoa kontuan hartuz, bidezkoa da, unibertsitateak berak egin dituen kalkuluen arabera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2020ko finantzaketa handitzea, guztira 914.243 euro gehituz: 164.243 euro tasen inpaktuagatik eta 750.000 euro COVID-19aren inpaktuagatik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoan ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago edo kontsignatuta dagoena aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa, lehen kasuan, edo kreditugehigarri bat ematekoa, bigarreanean.

Era berean, bigarren paragrafoan xedatzen du kreditugehigarria eta aparteko kreditua edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri ba-

tzuekin finantzatzen ahal direla, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedapenak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne, edo ekitaldi ekonomiko horretan berean egiaz izandako edo aurreikusitako sarrera handiagoen kargura.

1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

164.243 euroko kreditu-gehigarria ematen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa beharrei erantzuteko.

Kreditu-gehigarri hori aurrekontuko partida honetan aplikatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G10001 G1110 4455 322300 "NUPen finantzaketarako hitzarmena"	164.243 €

Kreditu-gehigarri hau aurrekontuko partida honetan dagoen kreditu erabilgarriaren kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G10001 G1110 4800 323100 Bekak eta laguntzak unibertsitate ikasketetarako	164.243 €

2. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

750.000 euroko aparteko kreditua ematen da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren finantzaketa beharrei erantzuteko.

Aparteko kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G10001-G1110-4455-322305 COVID-19 NUPen finantzaketarako hitzarmena	750.000 €

Aparteko kreditua aurrekontuko partida honetan dagoen kreditu erabilgarriaren kargura finantzatuko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
110000-11000-4000-000000 COVID-19 Estatuko Administrazioaren transferentzia	750.000 €

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Nafarroako Foru Berriaren Testu Bategina onesten duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2020ko azaroaren 13ko**

12:00ak arte luzatzea. Foru Lege proiektua 2020 ekainaren 25eko 72. NPAOn argitaratu zen (10-20/LEY-00011).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko plan bat abiaraz dezan, marokoar populazioa gure erkidegoan integratzeko.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berariazko plan bat abiaraz dezan, marokoar populazioa gure erkidegoan integratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean eztabaidatzeko:

Azken bi hamarkadetan immigrazioak gora egin du Nafarroan. Zenbait urtetan Hego Amerikako komunitateen presentzia bereziki handia bazen ere, eredu hori aldatzen hasi da berriki.

2019. urteaz geroztik Nafarroako migratzaileen kopuru handiena Marokotik datozen migratzaileena da. Zehazki, 2019ko urtarrilaren 1ean Marokon jaiotako 14.255 pertsona erregistratuta zeuden gure erkidegoan, era horretan gaindituta Ekuadorren jaiotako komunitatea, zeina Nafarroako kopurutsuena izan zen gutxienez ere 20 urtetan zehar.

Agian horregatik, Nafarroako Gobernuak, Gizarte Errealitatearen Behatokiaren, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitateko Kultura eta Gizarte Institutuaren bidez txosten bat prestatu du era sakonagoan ezagutzeko Nafarroan dauden marokoar jatorriko komunitateak, emakumeen ikuspegiarekin.

“Identidad y expectativas en la comunidad marroquí de Navarra: la perspectiva de las mujeres” izeneko txostenaren xedea da diagnostikatzeko Erriberako emakume marokoarren funtsezko arazoak, haien beharrezan detektatzea eta detektatutako arazoetarako balizko konponbideak iradokitzea.

Zentzu honetan, aipatu azterlanak lau arazo nagusi azpimarratzen ditu: alfabetatze maila guttiz baxua edo hutsa, arabieraz eta espainieraz ere bai; lanbide heziketaren eza, emakume horietako gehienek lan-aurrekaririk ez edukitzea eta seme-alabak dituzten emakume dibortziatuen kopuru handia.

Azterlanak jasotzen duenaren arabera, faktore horien konbinaketak aukera gutxi eskaintzen dio populazio talde horri Espainiako gizartean, eta hartara Nafarroakoan ere, erabat integratutako gizabanakoen multzo bihur dadin. Nafarroako Gobernuak horren aurka egin behar du.

Faktore horiek gutxitzeko edo desagerrarazteko xedea agertu behar du Nafarroako Gobernuaren ekintza edo ekimen guzti-guztietan, herritar horiek zuzenean edo zeharka ukitzen dituztenean.

Azterlanak berak proposamen bat jasotzen du, estrategiak eta politikak planteatzeko, norabide bikoitzeko transakzio bat ekarriko dutenak: lanbide ikastaro edo klaseetara joatea ezinbesteko baldintza bihurtzea laguntza ekonomikoak eskuratu ahal izateko.

Planteamendu horrekin kontrajarrita dago Nafarroako legedi indarduna, esate baterako, hain garrantzitsua den gizarteratzerako eta errenta bermaturako eskubidearen arloan. Gogoratu behar dugu indarreko arauaren izapidetzean Uxue Barcos buru zuen gobernu nazionalistak ezabatu egin zuela lehenagotik eskubidearekin lotuta zegoen betebeharra. Gizarteratzeko edo gizarteratu eta laneratzeko akordioa ezabatzen du errenta bermatua jasotzeko baldintza gisa eta, horren ondorioz, gizarteratze-errenta bermatua jasotzen dutenek gizarte eta/edo lan arloan aktibatze behar izatea, haien inguruabarren arabera, derrigorrez lehen egunetik.

Aldi berean, inoiz baino beharrezkoagoa da Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak buru jardun dezan marokoar jatorriko migrazioaileekiko berriazko plan batean, helburu izanik integrazio mailak handitzea, espainieraren ezagutza hobetzea eta pertsona horiek gure erkidegoko gizarte- eta lan-arloetan sartzea.

Legegintzaldia hasi zenetik behin eta berriz entzun dugu Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusiaren helburuetako bat dela kulturarteko bizikidetasunerako plan bat abiaraztea, baina hilabeteak igaro ahala egiaztatzen dugu ez dagoela ezer horri buruz. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da.

Erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen berriazko plan bat abian jar dezan marokoar populazioa gure erkidegoan integratzeko, arreta berezia eskainiz emakumeen egoerari.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legea alda dezan, hasieratik bertatik lotzeko hura jasotzeko eskubidea Gizarteratzeko edo gizarteratu eta laneratzeko akordio bat sinatzearekin, non sartuko baitira, pertsona bakoitzaren inguruabarren arabera, gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideak, esate baterako adingabeen eskolatzeta, espainiera ikaseta, laneratzeko programetan parte hartzea eta enplegarritasuna hobetzeko eta lanbide heziketako ibilbideak egitea. Helburu hori lortzeko Nafarroako Gobernuak indartu beharko ditu lan orientatutako akonpainamendu sozialeko edo/eta laneko akonpainamenduko zerbitzuak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta hirugarren sektoreko entitateek ematen dituztenak.

Iruñean, 2020ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2020-21 ikasturterako gradu eta master ikasketetarako beken deialdiari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, 2020-21 ikasturterako gradu eta master ikasketetarako beken deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2020-21 ikasturterako gradu eta master ikasketetarako beken deialdiari dagokionez:

Zer ildo nagusi ditu eta zer aldaketa sartu dira aurreko ikasturteko deialdiarekin alderatuta?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, bikote egonkorren erregistro bakarra sortzeari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga andreak aurkeztutako galdera, bikote egonkorren erregistro bakarra sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2019ko urriaren 16an, indarra hartu zuen Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazio edo Foru Berria aldatu eta eguneratzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legeak, zeina 2019ko apirilaren 16ko NAO n argitaratu baitzen. Azken xedapenetako lehenean honako hau ezartzen da:

“Foru-lege hau argitaratzen denetik urtebeteko epean, bikote egonkorren erregistro bakarra sortu beharko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxikia, publizitate-ondorioetarako”.

Nafarroako Gobernuak noiz sortuko du bikote

egonkorren erregistro bakarra? Zer dela-eta ez dira bete hura sortzeko epeak?

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, etxebizitza egokirako sarbiderik ez duten pertsonen berrogeialdiak bermatzeko bitarteko baliabideei buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, etxebizitza egokirako sarbiderik ez duten pertsonen berrogeialdiak bermatzeko bitarteko baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari

Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pandemiaren lehen olatuan, Iruñeko Alde Zaharrean 80 familia (gehienak guraso bakarrek) azpietxebizitza egoeran zeudela egiaztatu zen.

Nola ari dira funtzionatzen berrogeialdiak bermatzeko bitarteko baliabideak etxebizitza egokirako eskubidea eskuratzen ez duten pertsonengan, eta zer baliabide gaituko ditu familia horiek bigarren olatu hori azpietxebizitzetan pilatuta pairatzen jarrai ez dezaten?

Iruñean, 2020ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Errege Bardeako Biosferaren Munduko Erreserbaren eta Parke Naturalaren mugan parke eoliko bat instalatzeko proiektuari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Errege Bardeako Biosferaren Munduko Erreserbaren eta Parke Naturalaren mugan parke eoliko bat instalatzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Prentsaren bidez jakin dugunez, Green Capital Energy enpresak aurreikusi du 75 haize-sorgailuz osatutako parke eoliko bat instalatzea Errege Bar-

deako Biosferaren Munduko Erreserbaren eta Parke Naturalaren mugan.

Hainbat kolektibo ekologistak ohartarazi dute, parke eoliko hori Nafarroako eta Aragoiko lurretan jartzeak faunari kalte egin diezaiolke, batez ere erreserba horretan bizi diren hegazi harrapariei; izan ere, hegazi harrapariek parke eolikoa jarri nahi den eremura bidaiatzen dute, elikagai bila.

Aspaldidanik salatzen ari garen bezala, inguruko fauna bereziak (arrano beltzak, sai arreak, Naumann belatzak edo miruak) ezinbestean pairatzen ditu Errege Bardean kokatutako Tiro Poligonoaren afekzioak, eta zalantzarik gabe aipatzen dugun proiektu honek nabarmen areagotu ditzake afekzio horiek.

Galdera

Zer informazio du Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Errege Bardeako Biosferaren Munduko Erreserbaren eta Parke Naturalaren mugan parke eoliko bat instalatzeko proiektuari buruz, eta zer jarrera du horren inguruan?

Iruñean, 2020ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, COVID-19aren krisiak Nafarroako Foru Komunitateko emakumeengan duen eraginari buruzko azterlanari buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, COVID-19aren krisiak Nafarroako Foru Komunitateko emakumeengan duen eraginari buruzko azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado,

dok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

Nafarroa Suspertu planean aipatzen zen COVID-19aren krisiak Foru Erkidegoko emakumeengan duen inpaktuari buruzko azterlan bat eginen zela Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren lankidetzarekin.

Hori guztia ikusirik, parlamentari honek honako hau galdetzen du:

Zer egoeratan dago azterlana, eta, gaur egun, zer datu eskaintzen ditu COVID-19aren krisiak Nafarroako Foru Komunitateko emakumeengan duen inpaktuari buruz?

Iruñean, 2020ko urriaren 22an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

Galdera, kirol-ekitaldien babesletzari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkezturiko galdera, kirol-ekitaldien babesletzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak, eta zehazki zure departamentuak, Nafarroako Kirolaren Institutuak interes orokorreko zat jotako kirol-ekitaldien kirol-babesletza sustatzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, unibertsitate-ikasketetarako 2020/21 ikasturterako beken deialdiari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, unibertsitate-ikasketetarako 2020/21 ikasturterako beken deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2019ko irailaren 24ko agerraldian, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak iragarri zuen hobekuntzak eginen zirela 2020/2021 ikasturterako unibertsitate-ikasketetarako beken deialdian, haiek familien gizarte-egoerarekin lotzeko, deialdia aurreratzen saiatzeko eta pixkanaka beka-sistema bat ezartzeko, zeinaren bidez bermatuko baitzen NUPeko graduen lehen ikasturteetan unibertsitate-tasak doakoak izatea. Parlamentari honek honako galdera hau egiten du:

1. Noiz aurkeztuko da 2020/21 ikasturterako unibertsitate-ikasketetarako beken deialdia?

2. Zer aldaketa eginen dira helburu horiek betetzeko?

3. Handitu eginen al da iazko ikasturterako bideratu zen 3,3 milioi euroko partida?

4. Zein izanen da aurrekontu-zuzkidura?

5. Aparteko zer neurri sartuko dira COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioak arintzeko?

Iruñean, 2020ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen ebaluazio-probei buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, konfinamendu-egoeran dauden ikasleen ebaluazio-probei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

- Zer jarraibide eman dizkie Hezkuntza Departamentuak Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxeei, nola jokatu jakiteko ikasleren batek ohiko ebaluazio-probak egiteko aukera galduz gero, COVID-19aren pandemiak eragindako konfinamendu-egoera baten ondorioz?

Iruñean, 2020ko urriaren 1ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Nafarroako hizkuntza eskolen kontingentzia planari buruzkoa.*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako hizkuntza eskolen kontingentzia planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro

González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

- Ba al dago berariazko kontingentzia-planik Nafarroako hizkuntza-eskolentzat? Zer neurri berezi diseinatu dira horrelako irakaskuntzetako ikasleen eta irakasleen osasuna babesteko?

- Zer alde daude 2020/21 ikasturte honetan matrikulatutako ikasleen eta 2019/20 ikasturtean matrikulatutakoen artean? Erantsi ezazu bi urte akademikoetako bakoitzaren ikasle-zerrenda, eskolaren (Iruñea eta Tuteran), ikastaroaren eta hizkuntzaren arabera ordenatuta.

Iruñean, 2020ko urriaren 19an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, Nastat-en galdetegiari buruzkoa.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, Nastat-en galdetegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten dizkio Nafarroako Gobernu-ko Ogasuneko kontseilari, idatziz erantzun ditzan.

1) Igorritako galdetegian askoz galdera gehiago daude Nastat-ek kargatu duen Excelean bildutakoak baino; zergatik ez dira argitaratu? Mesedez, igorri al bait lasterren.

2) 2020ko uztailaren 2an emandako erantzunean Nastat-eko zuzendariak ez zituen fitxategi informatikoak eman nahi, honako hau adierazita: "datu indibidualen fitxategiak ezin dira eman, bakarrik agregatuak datuak, ez badute aukerarik ematen [identifikatzeko], zuzenean edo zeharka, aipatu arauketak babestutako pertsona fisikoak". Baina Eustat-ek bere webgunean kargatu egiten ditu Bizi-baldintzei buruzko bere Inkestetako mikrodatuak. Horrek esan nahi du ahalbidetuko litzatekeela inkestatutako pertsonak zuzenean edo zeharka identifikatzea?

3) Enpresak igorritako eskaintza teknikoak 33. orrialdean adierazten du bere sistemak "datuen grabaketan O akats" duela. Nola gertatu ahal izan zen 8. taulako akatsa, zuzendari jaunak 2020ko urriaren 5ean aitortzen duen hori? Azalpenak eskatu al zaizkio enpresari?

4) Nik egindako PEI 559/2020 informazio-eskariaren p. puntuan galdetzen nizun bi proiektzio

egiteko aplikatu den formulari buruz. Zure erantzunean honako hau zehazten didazu:

"Zehaztutako aldea gertatzen da igogailuen aplikazioagatik. Igogailuek behaketen pisua eraldatzen dute, ikertzen den populazioaren banaketaren ariora. 2018ko bizi-baldintzei buruzko inkesta sozialaren emaitzen haztapena aplikatu da, kalibratze aldera eskuratu den lagina, 2018an Nafarroako erroldako 15 urteko edo hortik gorako biztanleriaren arabera, geografiari (euskara zerbitzu teknikoaren zonaldeak), sexuari eta adin-taldee begira. Horregatik, eskuratutako galdera bakoitza haztatu da ateratako tarte bakoitzak ordezkatzen duen biztanleria-pisuaren proportzioan.

Hori ohikoa da estatistika guztietan. Adibidez, Biztanleria Aktiboaren Inkestari begiratzen badiuzu, ikusiko duzu igogailuek oso hein zabala dutela. Azken hiruhilekoan, adibidez, behaketa batzutan 15 pertsona ordezkatzen dira eta beste batzutan 676."

Behaketak haztatu egiten zirela, hori garbi zegoen. Baina, egiaztatu ahalko duzunez, nire galderan eskatzen zen aipatu proiektioetara iristeko erabili zen formula, eta haren justifikazioa ere bai. Mesedez, zehaztasun handienarekin erantzun hurrengoan.

5) Alde handia ikusten da Euskarabideak euskalduntzat jotzen dituen pertsonen kopurua (75.810) eta "euskara hein batean ezagutu baina ongi hitz egitera iristen ez direnak" (42.994 pertsona) batuz gero ateratzen den kopuruaren eta Nastat-en arabera "euskara hein batean ezagutzen" dutenen artean (152.573). Aldea, hain zuzen, 33.769 pertsona dugu. Egia da Euskarabidearen zenbakiak 16 urtetik goitikoei buruzkoak direla eta Nastat-enak, ordea, 15 urtetik goitikoenak, baina azken horiek 9.104 pertsona baino ez dira; beraz, bazter utzi behar dugu zenbakien desadostasuna etortzea unibertsoa definitzeko irizpide desberdin horietatik. Horiek horrela, ondorioztatutako behar dugu Nastat-ek eta Euskarabideak irizpide desberdinak erabili dituztela "euskara hein batean ezagutu baina ongi hitz egitera iristen ez direnak" kontuan hartzerakoan. Zein izan dira irizpide horiek eta zer justifikazioekin? Zein izan dira Nastat-enak eta zer justifikazioekin?

6) Nafarroari buruzko 2018ko datu soziolinguistikoen 39. orrialdean esaten da euskaldunen % 35,9k ingelesaren eta/edo frantsesaren ezagutza duela; erdaldunen artean % 22,8 izanzen lirate-

ke. Baina zuzendariak igorritako Excel tauletan ikusten da lehenbiziko portzentajea askoz ere altuagoa izan beharko litzatekeela (berriro ere, Euskarabideak bakarrik 16 urtetik goitikoak kontuan hartzeak ez luke horren jauzi handia justifikatuko). Erdaldunei dagokienez, TB taulan orobat –hori ere zuzendariak igorria, erdaldunek ingelesa ezagutzeari buruzkoa– agertzen den portzentajea Euskarabideak ematen duen % 22,8 hori baino askoz handiagoa da. Nola azalduko litzateke hori? Euskarabidearen datuak akastunak dira edo Nastaten datuak?

7) Zein dira behaketak eta frantsesaren ezagutzaren zenbaki absolutua euskara hein batean ezagutu baina hitz egiten ez dutenen artean? Mesedez, datuak eman, adinaren, ikasketen, eskualdeen, Lurralde Antolamenduko Planen arabera eremuen eta hizkuntza eremuaren arabera.

8) Azken informazio hori igorri bitartean, eman dizkidazu datuak oinarri hartuta prestatu ditudan kalkuluen arabera, euskara hein batean ezagutu baina hitz egiten ez duten 15-19 urteko gazteen portzentajea erabat baxua da, % 17,9 ingurukoa. Alegia, Th taulan gazte euskaldunei egozten zaizkien erdia baino gutxiago eta Te taulan gazte erdaldunei egotzitakoaren ia erdia. Ziur zaude jauzi hori ez datorrela lagina hautatzerakoan izandako akatsen batetik?

9) Nastat-eko zuzendariak igorritako Tf taulan frantsesa hein batean ezagutzen duten 15-19 urteko gazte erdaldunei buruzko behaketak % 29,78 dira, baina zenbakiaren igoeran kopurua % 30,7raino iristen da. Alegia, puntu batetik gertu dagoen gorapena. Baina Th taulan frantsesa ezagutzen duten 15-19 urteko gazte euskaldunen kasuari begiratzen badiogu, behaketen eta proiektioaren arteko jauzia 12,6 puntukoa da. Euskaldunen artean ingelesa jakiteari buruzko taulan ez da era horretako inolako haztapenik ikusten. Gertatzen horren azalpen zehatza eman ahalko zenidake?

10) Laginean ikusten da euskaldunek neurritz gainezko ordezkariak dutela adin-tarte guztietan, ikasketa maila guztietan eta eskualde guztietan, salbu eta Iruñerrian. Gainera, modu globalean ere euskaldunek neurritz gainezko ordezkariak izan du. Zehazki, pertsona bat elkarriketatu da 74,7 euskaldun bakoitzeko eta 98,6 erdaldun bakoitzeko. Zer haztapen motarekin konpentsatu da lerratze hori Nastat-ek kargatu dituen Excel tauletan bildutako galderak?

11) Nastat-eko zuzendariaren ustez laginaren prestaketa egokia izan al zen edo uste al du akastuna izan zela?

12) Nastat-eko zuzendariaren ustez euskaldunek adin-tarte guztietan neurritz gainezko ordezkariak edukitzea zori kontua al da?

13) Mesedez, igor diezazkizazu ingelesa ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten erdaldunen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera.

14) Mesedez, igor diezazkizazu frantsesa ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten euskaldunen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera.

15) Mesedez, igor diezazkizazu ingelesa ongi edo nahiko ongi hitz egiten duten erdaldunen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera.

16) Mesedez, igor diezazkizazu euskara hein batean ezagutu bai baina ongi edo nahiko ongi hitz egiten ez duten eta ingelesa ongi edo nahiko ongi hitz egiten dutenen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera.

17) Mesedez, igor diezazkizazu euskara hein batean ezagutu bai baina ongi edo nahiko ongi hitz egiten ez dutenen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera, haien ingelesaren maila, eta modu bereizita, frantsesaren maila egiaztatzen duen titulazioari jarraikiz.

18) Mesedez, igor diezazkizazu euskara ongi edo oso ongi hitz egiten ez dutenen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera, haien ingelesaren maila, eta modu bereizita, frantsesaren maila egiaztatzen duen titulazioari jarraikiz.

19) Mesedez, igor diezazkizazu euskara ez dakitenen gaineko behaketak eta datu absolutuak, adinaren, eskualdeen eta abarren arabera, haien ingelesaren maila, eta modu bereizita, frantsesaren maila egiaztatzen duen titulazioari jarraikiz.

20) 15 urtetik 29 urtera bitarteko gazte euskaldunen, erdaldunen, euskaraz ez dakitenen eta dakitenen baina euskaraz egiten ez dutenen balio absolutuak eta oharrak, Lurralde Antolamenduko Planen arabera eremuen arabera.

Iruñean, 2020ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, transferentzia arrunten aparteko funtsa ordaintzeari buruzkoa, COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan duen inpaktua apaltzeko.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, transferentzia arrunten aparteko funtsa ordaintzeari buruzkoa, COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan duen inpaktua apaltzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak, uztailaren 1eko 13/2020 Foru Legean xedatutakoa aplikatuz, 25 milioi euroko ezohiko kreditu baten banaketa arautu zuen, Nafarroako Toki Ogasunen parte-

hartzearen funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartu behar izan diren ohiz kanpoko neurri urgenteengatik toki entitateek dituzten beharrei erantzuteko.

25 milioi euroen banaketa eta partiketa hiru partida desberdin sortuz egin zen. Horietako batean, "COVID-19ak 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuetan duen inpaktua apaltzeko aparteko funtsa" izenekoan -10.500.000 eurokoa da-, lerroetako bat adinekoentzako egoitzetarako eta eguneko zentroetarako da, eta 500.000 euroko zuzkidura du.

1. Lurralde Kohesiorako Departamentuak ordaindu al dizkie udalei funtsean aurreikusitako zenbatekoak? Noiz? Ordaintzeko ebazpenaren edo ebazpenen kopia eskatzen da.

2. Lurralde Kohesiorako Departamentuak kontrolatu al du 25 milioi eurotik zenbat bideratu den azkenean egoitzetara? Hala bada, eskatzen da adieraz daitezen kopurua eta zein toki erakundek bideratu duten diru hori egoitzetara.

3. Lurralde Kohesiorako Departamentuak jakinarazi al dizkie Eskubide Sozialetako Departamentuari zein diren udalei, egoitzetan erabil dituzaten, bideratutako kopuruak? Hala baldin bada, jakinarazpen horren kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2020ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Estatuak autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako duen 300 milioiko aparteko funtsari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, Estatuak autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako duen 300 milioiko aparteko funtsari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko

martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoa aplikatuz, Estatuak 300 milioiko aparteko funtsa ezarri zuen autonomia-erkidegoetako gizarte-zerbitzuetarako.

Hedabideetan argitaratu denez, kopuru horren % 1,5, 4,5 milioi euro, Nafarroarentzat zen.

1. Noiz jaso ziren funts horiek Estatutik?

2. 4,5 milioi horietatik, zenbat bideratu da Nafarroako egoitzetara?

Funts horiek zein kontzeptuetarako erabili diren xehakatzeko eskatzen dugu.

3. Noiz ordaindu zaie Nafarroako egoitzei Nafarroako egoitzetara bideratzekoa zen funts horren zenbatekoa? Ordaintzeko ebazpenaren edo ebazpenen kopia eskatzen dugu.

4. Eskatu al du Estatuak justifikatzeko aparteko funtsetik jasotako 4,5 milioi euroak zertarako erabili diren?

Justifikazio-errekerimenduaren eta, hala bada, gorkio, egindako justifikazioaren kopia eskatzen da.

Iruñean, 2020ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko egoitzak finantzatzeari buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko egoitzak finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

PES-Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Galdera hau egin den egunean, Eskubide Sozialetako Departamentuak diru-kopururik bide-

ratu al du egoitzetara COVID-19aren pandemiak eragindako ezohiko gastuak arintzeko?

2. Hala baldin bada, zenbat?

3. Zenbateko horretatik, zenbat etorri da Estatuaren ezohiko funtsetik eta zenbat Departamentuaren funts propioetatik?

4. Zenbatekoren bat ordaindu bada, ordaintzeko ebazpenaren edo ebazpenen data eta horien kopia.

5. Zenbatekoren bat ordaindu bada, zein izan dira banaketa-irizpideak?

6. Ba al dute zenbateko horiek zerikusirik kontseilariak maiatzaren 8an egoitzetarako iragarritako 2,3 milioiekin? Horrela ez bada, desadostasunak zergatik gertatzen diren azaltzea nahi dugu.

7. Zertarako bidali zion mezu bat idazkari nagusi teknikoak Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari 2020ko maiatzaren 14an, osasun-krisiak eta/edo hari aurre egiteko neurriek eragindako zerbitzu-aldaketak edo -ordainketak kudeatzeko toki entitateei eskatuko zitzaizkien datuen berri emateko? Mezu elektronikoko horrek ekin-tzaren bat ekarri al du berekin?

Iruñean, 2020ko urriaren 20an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Interpelazioak osoko bilkurako gai-zerrendan sartzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urriaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikuluekin bat, honako hau ERABAKI DA:

1. Interpelazioak dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan sartzea honako arau hauen arabera:

1.- Osoko Bilkura bakoitzean bi interpelazio sartuko dira gehenez ere, salbu eta Mahaiak, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, interpelazioen bat atzeratu baldin badu —Nafarroako Gobernuak eskatuta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluko 3. apartatuak xedatzen duenaren arabera eta, ahal dela, asteleheneko 9:30ak baino lehenago—; kasu horretan, hiru interpelazio eztabaidatzen ahalko dira.

2.- Gai-zerrendan talde parlamentarioen interpelazio bana sartzan ahalko da, aurreko apartatuan aurreikusitako kasuan izan ezik. Talderen bati interpelazio bat baino gehiago baldin bada gozki, interpelazioak eta galderak eztabaidatzeko hurrengo osoko bilkuran sartuko da interpelazio hori.

3.- Hona talde parlamentario bakoitzari sei interpelazioen multzo bakoitzean dagokion kopurua:

Navarra Suma: 2

Nafarroako Alderdi Sozialista: 1

Geroa Bai: 1

EH Bildu Nafarroa: 1

Talde mistoa: 1 (txandakatu eginen dira Podemos-Ahal Dugu Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra seiko multzo bakoitzean)

4.- Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartzeko, kontuan hartuko da talde parlamentario bakoitzari dagokion interpelazio kopurua, handitik txikira.

5.- Talde parlamentario batek uko egiten badio edo interpelaziorik ez badu aurkezten bere txandan, txanda galduko du eta dagokion hurrengo txandara arte itxaron beharko du beste interpelazio bat aurkezteko.

6.- Interpelazio bat dagokion gai-zerrendan sartzeko epea bukatuko da Osoko Bilkura egiteko den aurreko asteko osteguneko 17:30ak baino lehenago.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari eta talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2020ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias